

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

AZPEITIKO UDALA

Erregimen orokorreko 8 etxebizitza tasatu eta beren trastelekuak, Azpeitiko Bustinzuriko Errebala 4n (4 etxebizitza) eta Done Jakue 7n (4 etxebizitza), esleitzeko oinarriak.

Udal Batzarrak, 2018ko maiatzak 15ean egindako bilkuran erregimen orokorreko 8 etxebizitza tasatu eta beren trastelekuak, Azpeitiko Bustinzuriko Errebala 4n (4 etxebizitza) eta Done Jakue 7n (4 etxebizitza), esleitzeko oinarriak onartu zituen.

Oinarrien edukia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu zen 2018ko ekainaren 1ean, 105. zk).

Oinarrien 9. artikulua esleitu suertatu diren pertsona edo bizikidetzak unitateek aurkeztu dituzten ukoak erregulatzen du, adieraziz Etxebizitza Lurralde Ordezkaritzari jakinaraziko zaizkiola, eta Etxebide-Euskal Herriko Etxebizitza Zerbitzu Publikoaren Erregistroa arautzen duen araudiak jasotako ondorioak izango dituela, hala balegokio.

Kontuan izanik araubide honek ziurgabetasun egoerak ekarri ditzakela deialdian parte hartzen dutenentzat, Udal Batzarrak, 2018ko uztailaren 3an egindako bilkuran onartu du artikulua honen edukia modu zehatzagoan arautzea. Hori horrela izanik, artikulua honen edukia honako hau izango da:

9. Uko egitea.

Etxebizitza baten esleipenari uko egiten dionak ezin izango du uko egin eta urte beteko epean etxebizitza mota bera eta erregimen berberaz eskuratzeko ondoren egingo diren prozeduretan parte hartu, kenduta esleipenari uko egiteko arrazoia kreditu merkatuan finantzaketa lortzeko zailtasunak edukitzea izan bada. Halere, esleipenari uko egitean onartu ez den etxebizitza 15 m² erabilgarri baino gutxiago baldin baditu elkarbizitza unitateko kide bakoitzeko, uko egite horrek ez du eragotziko ondorengo prozeduretan parte hartzea.

Akordio honen aurka, honako errekurtsio hauek jar daitezke:

– Administrazioarekiko auzi errekurtsioa Donostiako Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, iragarkia argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita bi hilabeteko epean.

– Berraztertze errekurtsioa (aukerakoa) udaletxean, lehen aipatutako errekurtsioa jarri aurretik, iragarkia argitaratu eta hurrengo egunetik hilabete baten barruan.

Azpeitia, 2018ko uztailaren 16a.—Eneko Etxeberria Bereziartua, alkatea. (5184)

AYUNTAMIENTO DE AZPEITIA

Bases para la adjudicación de 8 viviendas tasadas municipales de régimen general y sus trasteros a construir en Bustinzuriko Errebala 4 (4 viviendas) y Done Jakue 7 (4 viviendas) de Azpeitia.

El Ayuntamiento Pleno en sesión celebrada el día 15 de mayo de 2018 procedió a la aprobación de las bases para la adjudicación de 8 viviendas tasadas municipales de régimen general y sus trasteros a construir en Bustinzuriko Errebala 4 (4 viviendas) y Done Jakue 7 (4 viviendas) de Azpeitia.

El contenido de las bases se publicó en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa de 1 de junio de 2018, n.º 105.

El artículo 9 de las Bases regula las renunciaciones presentadas por personas o unidades convivenciales adjudicatarias, que serán comunicadas a la Delegación Territorial de Vivienda y tendrá las consecuencias que la Normativa Reguladora del Registro de Solicitantes de Vivienda del Servicio Público de Vivienda del País Vasco-Etxebide establece para estos casos, si así procede.

Considerando que esta regulación puede llevar a situaciones de incertidumbre para los participantes en la convocatoria, el Ayuntamiento Pleno en sesión celebrada el día 3 de julio de 2018 ha acordado regular de una manera explícita el contenido de este artículo, que queda regulado de la siguiente forma:

9. Renuncia.

La renuncia a la adjudicación de una vivienda impedirá durante el plazo de un año desde la fecha de dicha renuncia, la participación en procedimientos posteriores, referidos al mismo régimen de acceso y tipología de vivienda, excepto que la renuncia a la adjudicación venga motivada por dificultades en la consecución de financiación en el mercado crediticio. No obstante la renuncia a la adjudicación de una vivienda cuya superficie útil sea inferior a la ratio de 15 m² útiles por cada miembro de la unidad convivencial no impedirá la participación en procedimientos posteriores.

Contra este acuerdo podrán interponer los siguientes recursos:

– Recurso Contencioso Administrativo ante el Juzgado de lo Contencioso Administrativo de San Sebastián en el plazo de dos meses contados desde el día siguiente a la publicación del presente anuncio.

– Recurso de Reposición ante este Ayuntamiento (con carácter potestativo), previo al Recurso señalado en el apartado anterior, en el plazo de un mes contado desde el día siguiente a la publicación del presente anuncio.

Azpeitia, a 16 de julio de 2018.—El alcalde, Eneko Etxeberria Bereziartua. (5184)